



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko apirilaren 7an

31 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudeaketa pribatizatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- A-68 autobidearen emakida-epea luzatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitalia Lankidetzaren Protokoloak finantzaturiko proiektuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzeke ereduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 2000-2001 kanpainarako esne-kuotari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Gonbarri industrialdeari buruz eta Altsasuko industrialdeko urbanizazio lanei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Eskualdeetako industrialde guztietan gas hornidura izateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Nuestra Señora de los Ángeles hartzaindegiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Iruñeko autobus geltokia jartzeko lekuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Telekomunikazio Zerbitzuak irekitako espedientei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Lan-osasun arloko kontrol-bideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Gai transgenikoak erabili eta kontsumitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Ernalkortasun-arazoak dauzkaten bikoteen kolektiboari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Zenbait aurrekontu-ekitalditan zehar zerga iruzurraren gutxi gorabeherako zenbatekoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Arraza autoktonoen hobekuntza genetikoari buruzko galdera, hala behiei nola latxa ardi eta rasa ardiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletako irakasleak Nafarroako Gobernuak bere menpean hartzeari eta horiek lan-araubideari eusteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Venta de Judas-Oibar bideunea konpontzeko obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 18 eta 65 urte bitarte izaki % 65etik gorako minusbaliotasuna duten pertsonen buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Krisialdian diren enpresei laguntzeko Foru Legeari jarraikiz eman diren laguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (30. or.).

F saila:
GALDERAK

Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudeaketa pribatizatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudeaketa pribatizatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 14ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudeaketa pribatizatzeari buruzko galdera bat egin, eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak honako erantzun hauek luzatu ditu:

1.- Zer arrazoi tekniko eta politikogatik pribatizatu ditu departamentuak Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen giza baliabideen kudeaketa?

Erantzuna: Nafarroako Gobernuaren Giza Baliabideen proiektuaren asmoa da Foru Administrazioaren giza baliabideak modu bateratuan kudeatzea, hiru eratako jarduketan bitartez: pertsonen zuzendutakoak (aldaketa kudeatzeko modulua, komunikazio plana, prestakuntza planak eta antzeko ekintzak gauzatuz), prozesuei zuzendutakoak (kudeaketa modernizatzeako modulua, kudeaketa prozesuen eta giza baliabideetan duen eraginaren definizio berri batekin) eta teknologiarik zuzendutakoak (sistemaren mekanizazio globala).

Horren bitartez, Administrazioaren antolaketa banatuari eman nahi zaio erantzuna.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak lehiaketa publiko bat antolatu zuen, honek hauta zitzan merkatuko tresna bat (kasu honetan, META4 hautatu zen) eta enpresa integratzaile bat (Informática El Corte Inglés, S.A.), hau da, tresna ezagutzen zuena eta beste enpresa eta administrazio publiko batzuetan nola erabiltzen hasi zen zekiena. Beraz, giza baliabideen kudeaketa ez da pribatizatu, merkatuko software bat Nafarroako Gobernuaren eskakizunetara egokitu baizik.

2.- "Informática El Corte Inglés S.A." enpresak kontratua bakarrik bete al du edo bakarrik ari al da betetzen?

Erantzuna: "Informática El Corte Inglés S.A." eta META4 enpresetako langileek eta Nafarroako Gobernuko langileek osaturiko talde misto bat ari da lanean proiektuan. Nafarroako Gobernuko taldea 40 pertsonakoa da, eta kideak Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko, Osasun eta Hezkuntza Departamentuko eta Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiko langileak dira.

3.- Enpresa horri esleitutako kontratuaren betetzea zertan da?

Erantzuna: eskakizunen zehaztapena eta produktuaren parametrizazioa eginik daude. Egitura organikoaren modulua eta lanpostuak eta plazak kudeatzeko erabiltzeko moduan daude. Nominen moduluari lehentasuna eman zaionez, hilabete honetan nomina frogekin eta paraleloekin hastea dago aurreikusirik, haien funtzionamendua ona eta kalitatezkoa dela ziurtatzeko.

4.- Nafarroako Gobernuaren non ari da ezartzen kudeaketa sistema berria?

Erantzuna: Ez da Nafarroako Gobernuaren zentro batean ere ezarri. Asmoa da frogatu eta parale-

loekin Tuterako osasun eskualde oinarrizkoan hasi eta pixkanaka Nafarroako Gobernuak kolektibo guztiak sartzen joatea. Egitura organikoaren modulua eta lanpostuak eta plazak kudeatzeko Administrazio osorako jarriko dira funtzionamenduan.

5.- Esleipena hartu duen enpresak zer dirukopuru jaso du?, zein egunetan jaso ditu kopuru horiek?

Informática El Corte Inglés, S.A. enpresari ordainketa hauek egin zaizkio:

60.000.000 pezeta, 1998ko ekitaldiari dagozkionak. Data: 98/12/23.

55.000.000 pezeta, 1999ko ekitaldiko lehen epeari dagozkionak. Data: 99/7/16.

Gainerakoa (55.000.000 pezeta, 1999ko 2. epeari dagozkionak), ordaintzeko dago eta haren zenbatekoa erreserbatu dago gerakinen kontuetan.

Iruñean, 2000ko martxoaren 2an

Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

A-68 autobidearen emakida-epea luzatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak A-68 autobidearen emakida-epea luzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak A-68 autobidearen emakida-epea luzatzeari buruzko galdera bat egin zuen, eta idatzizko erantzuna eskatu. Hona hemen Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak ez du inolako erabakirik hartu A-68 autobidearen emakida-epea beste hamabost urtez luzatzeari dagokionez.

2. Nafarroako Gobernuak ez du parte hartu Estatuaren eta enpresa hartzailearen arteko negoziatioetan.

3. Nafarroako Gobernuak ez du iritzirik plaza-ratu emakida-epea luzatzeak emakida berreskuratzeko ekar litzakeen eragozpenei buruz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 1ean

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak finantzaturiko proiektuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak finantzaturiko proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 14ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Nafarroa-Euskal Autonomia Erki-

degoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak finantzaturiko proiektuei buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna, eta erantsirik dituen datuak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 1ean

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu datuak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 14ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

«Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldeak Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteko asmoa al du Herrilan Departamentuak?

2.- Aztertu al du beste aukerarik? Hala bada, zeintzuk izan dira aukera horiek?

3.- Egitea erabakitzen den aukera edozein dela ere, adostu al du kaltetutako toki entitateekin edo ba al du adosteko asmorik?

Parlamentuko galdera honen hiru atalen ezauzgarriak, irispina eta esparrua kontuan harturik, bidezkoa da hiruei batera erantzutea.

Estatuko Administrazio orokorrarekin Itoizko urtegia eraikitzeke izenpetu diren akordioen barrenean, Nafarroako Gobernuari obra honek ukituriko zerbitzuak, errepideak barne, lehengoratzea dagokio.

Horri jarraikiz, aurreikusirik dago Orotz-Betelurako bidea, Nagoretik, berriz egitea.

Errepide berriaren behin betiko trazadura zehazteko dago. Halere, Orotz-Beteluko Udalare-

kin bilerak egiten dira, aldian behin, gai honetan duen iritzia ezagutzeko.

Aurrerantzean ere egingen dira horrelako bilerak, bide honen proiektuaren inguruan ahal den kontsentsu zabalena lortzeko asmoz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 14ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Honi erantsirik doakio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren egitura eta plantilla organikoa aldatzeko proposamena. Proposamena, Ingurugiro eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiek egin dute, eta egungo egoerari buruzko azterlan errealista, objetibo eta osatu egiteko jaso zuten mandatuaren emaitza da.

2. Ingurugiro kontseilariaren iritziz, proposamen horrek erantzun egokia ematen die Departamentuaren beharrei eta, beraz, proposamen gisa igorri du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura, honek txostena eman dezan. Noski, txosten hori aintzat hartu ahal izanen da behin betiko proposamenean.

3. Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenak ere erantsi

zaizkio erantzun honi. Horietan ageri denez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren proposamenaren azterketa laburrak dira. Horietan ez dago egitura eta plantilla organikorako ordezko proposamenik, baizik eta zenbait ohar eta gomendio horien inguruan. Izan ere, honakoa adierazten da: "egokia dirudi zenbait zeregin indartzeak eta plangintza, jarraipen eta kontrolerako funtsezkoak diren lanei ekiteko behar diren langileak eskuratzeko... ez (dirudi egokia) ordea, egitura sortzeak, eginkizun horizontalak betetzeko xedeaz." Bada beste baieztapen bat, Ingurugiro Zuzendari Nagusiari dagokiona, plantilla handitzeko premia berresten duena, alegia, "aldi baterako kontratuak egitea da beste aukera bat, baina zerbitzuak kanpora ateratzearekin konparaturik, ez luke ekarpen handirik egingen..."; etab.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ebatziko du, departamentuen zerbitzu eta atalen mailako egitura organikoak, bai eta plantilla organikoaren aldaketak ere, onesteko eskumena duen aldetik, eta betiere kontuan harturik espedientea osatzen ari diren proposamenak eta txostenak eta erabili daitekeen finantzazioa. Halere, Departamentuak berresten du planteatutako proposamena, egoeraren azterlan sakon baten ondorioa izanik, biderik onena dela Departamentuak bere gain dituen eta ugaltzen doazkion eginkizunak betetzeko eta administratuek espero duten bizkortasun eta kalitate administratiboa erdiesteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatutako dokumentazioa foru parlamentariaren eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzeke ereduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzeke ereduari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 14ko 16 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzeke ereduari buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Kontzeptu bakoitzean, Departamentuak proiektuak eta azterlanak kontratatzeke 1999an erabili zituen ereduak hauexek dira:

A) Ehizaren eta arrain-hazkuntzaren kudeaketarako proiektuak eta azterlanak:

Ingurugiro zuzendari nagusiak otsailaren 17an emaniko 499/1999 Ebazpenak Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietate publikoaren esku utzi zuen Nafarroaren biodibertsitatea zaintzeko beharrezkoak diren zenbait jarduera egitea, horien artean ehiza eta arrain-hazkuntzaren kudeaketarekin lotutakoak.

B) Oihanberritzeak:

Ingurugiro zuzendari nagusiak emaniko ebazpenen bidez Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietate publikoaren esku utzi ziren proiektu hauek:

– Luzaide, Sastra alderdia. Azaroaren 25eko 3062/1999 Ebazpena.

– Ultzama, Narbatazu alderdia. Abenduaren 13ko 3160/1999 Ebazpena.

– Ultzama, Oiaregi alderdia. Abenduaren 13ko 3161/1999 Ebazpena.

– Eltzaburu, Añalde alderdia. Abenduaren 13ko 3162/1999 Ebazpena.

– Erbiti, Zugatzmendi alderdia. Abenduaren 14ko 3187/1999 Ebazpena.

– Iraizotz, Labaki alderdia. Abenduaren 14ko 3186/1999 Ebazpena.

C) Babestutako guneen kudeaketa:

– Las Cañas Natur Erreserba. El Bordón Hegaztien Behatokia erabilera publikoaz ardurtzea. Urtarrilaren 30eko 365/1997 Ebazpenaren bidez onetsitako kontratuaren luzapena. Esleipen hartzailea: Ontina.

– Leurtzako Urtegien Aisiarako Natur Eremua. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Urrotz eta Beintza-Labaiengo Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, 1999ko irailaren 15ekoa. Gastua abenduaren 20ko 3364/1999 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

– Orgiko Aisiarako Natur Eremua. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Lizasoko Kontzejuaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Orgiko Aisiarako Natur Eremua kudeatzeko. Uztailaren 13ko 956/1999 Foru Aginduaren bidez onetsia.

– Pitillasko Aintziraren Natur Erreserba. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Pitillasko Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, 1998ko uztailaren 6ko Gobernu bilkuran, Pitillasko Natur Erreserba kudeatzeko 1996an izenpetutako hitzarmena aldatze onetsi zen.

– Natur guneen mantenimendua. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietatearen esku utzirik maiatzaren 14ko 1293/1999 Ebazpenaren bidez.

– El Pulguer Baltsako Natur Erreserba eta Urederraren Iturburuaren Natur Erreserba. Zaintze eta mantentze lanak. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietatearen esku utzirik ekainaren 9ko 1493/1999 Ebazpenaren bidez.

– Irati. Zainketa eta garbiketa. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, uztailaren 22ko 1843/1999 Ebazpenaren bidez onetsia. Ingurugi-

ro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, uztailearen 22ko 1842/1999 Ebazpenaren bidez onetsia.

– Urbasa. Azpiegiturak hobetzeko lanak. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietatearen esku utzirik ekainaren 10eko 1502/1999 Ebazpenaren bidez.

– Urbasa. Zaintze lanak. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietatearen esku utzirik ekainaren 10eko 1502/1999 Ebazpenaren bidez.

D) Ibaiak leheneratzeko proiektuak:

Kontratatzeko ereduak lehiaketa eta Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietate publikoaren esku uztea izan da.

2.- A) Aragoi eta Cidacos ibaien bazterren leheneratzeko azterlana egiteko enpresa hauek aurkeztu ziren:

Dendros, S.L., Hibaia, S.L., Amaia Casado, Ingemisa Rointec, Taller de Ingeniería, Terra-Urrizalqui, Galamys, Basoinsa, Gea, Ecolan, Intecsa, Micron, S.A., Aquaplan, Eptisa, Dryas, Indena-Medea, Lasa, Europroyec, Euroestudios, S.A., Enrique Herranz.

B) Arga, Ultzama eta Mediano ibaien bazterren ingurugiroko baldintzak leheneratzeko azterlana. Honako enpresa hauek aurkeztu ziren:

Arguilur, Euroestudios, S.A., Norcontrol, Hibaia, S.L., Dehesa, S.A., Cinsa-EP

C) Iturrioxko erreka ingurugiroko baldintzak leheneratzeko proiekturako enpresa hauek aurkeztu ziren:

Ingeniería y Urbanismo, S.L., Cima Ingenieros, S.L., Save, S.L.

3.- A) Aragoi eta Cidacos ibaien bazterren lehengoratzeko azterlana.

Dendros, S.L.: 6,45.

B) Arga, Ultzama eta Mediano ibaien bazterren ingurugiroko baldintzak leheneratzeko azterlana.

Hibaia, S.L.: 8,6

C) Iturrioxko erreka ingurugiroko baldintzak leheneratzeko proiektua.

Cima Ingenieros, S.L.: 7,00.

Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietate publikoaren esku utzi ziren Ebro, Aragoi eta Cidacos ibaietako obren proiektuak. Lan horiek Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin batera egin ziren, lankidetzaren hitzarmen baten bidez, honako herri hauetan: Castejón, Valtierra, Arguedas, Fontellas, Caparros, Martzilla, Villafranca, Milagro, Pitillas, Erriberri, Lizarra, Milagro, Beire, Fontellas, Barasoain, Traibuenas, Garinoain eta Murillo el Cuende.

4.-Oro har, lanak kontratatze prozedura ez da beste urteetan erabilitakoaz bestelakoa. Hala ere, bi kasutan aldaketak izan dira, ondotik azaltzen diren arrazoiengatik.

Nafarroaren biodibertsitatea zaintzeko behar diren zenbait jardura, ehiza eta arrantza, gune babestuak eta basa fauna eta floraren espezieak kudeatzea barne dela, ez dira betetzen ahal, material eta langile aldetik behar adinakoa den egituraren bermea izan gabe; ildo horretan, Administrazioak Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietatearen bidez zuzenean kudeatu ditu orain arte programa horiek, entitate bakar batek denak bildu eta behar diren baliabideak eskura izan ditzan.

Lehen, Administrazioak zenbait enpresa eta profesional kontratatzen zituen ehiza arloko teknikari aholkulari izateko, eskualde bakoitzerako. 1999az geroztik, berriz, Administrazioak ehiza barrutietan bete duen eginkizuna aholkularitzakoa izan da, ukituek beraiek eraman beharreko jardurak ildoak zehazteko.

Salbuespen gisa, Ebro, Aragoi eta Cidacos ibaietako lanen proiektuak ere Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. sozietatearen gain utzi ziren, presa zela-eta. Lan horiek Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin batera egin ziren, lankidetzaren hitzarmen baten bidez, honako herri hauetan: Castejón, Valtierra, Arguedas, Fontellas, Caparros, Martzilla, Villafranca, Milagro, Pitillas, Erriberri, Lizarra, Milagro, Beire, Fontellas, Barasoain, Traibuenas, Garinoain eta Murillo el Cuende.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

2000-2001 kanpainarako esne-kuotari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak 2000-2001 kanpainarako esne-kuotari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak 2000-2001 kanpainarako esne-kuotari buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzunak, galderak egin diren ordena berean:

1. Batasuneko Nekazaritza Politikaren Erreformaren esparruan Espainiari egokitu zitzaion kuotaren igoera banatzeko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa eta autonomia erkidegoak bildu ziren negoziatorako. Prozesu zaila izan zen, interesak eta planteamenduak oso desberdinak zirelako. Nafarroak lortutako kuota, hortaz, oso zentzuzkoa dela pentsa dezakegu.

Esnetarako azientzaren sektorearen egoera Nafarroan, oro har, nahiko ona da. Nolanahi ere, ustiategi askotan erdietsitako profesionalizazioak aldioro kuota igotzea eskatzen du lehiakortasun mailari eutsi ahal izateko.

2.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez du jakinarazpen ofizialik jaso Erreserba Nazionalak kuota zenbat igoko duen adierazteko. Gure iritziz, halere, portzentaia eskatzaileen alde ebatzi diren errekursoak betearazteko behar dena baizik ez da izan behar.

3.- Kuotaren onuradunek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak finkatzeko Errege Dekretu bat onetsiko da.

Onetsi ondoren, Nafarroan esne kuota eskuratzeko baldintzak ezarriko dituen Foru Agindua eginen da.

4.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak sustatzen dituen arau guztiei buruzko iritzia eskatzen ohi die nekazaritzaren arloko erakundeei, eta halaxe eginen du kasu honetan ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Gonbarri industrialdeari buruz eta Altsasuko industrialdeko urbanizazio lanei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Gonbarri industrialdeari buruz eta Altsasuko industrialdeko urbanizazio lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Gonbarri industrialdeari buruz eta Altsasuko industrialdeko urbanizazio lanei buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

1) "Arakil ibaiaren azterlan hidraulikoa Urdiainen eta Zangitun (Altsasu)" izeneko gaiaren inguruan Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari Francisco Jiménez Gómez jaunak eginiko txostenari dagokionez, esan beharra dago haren helburua dela industrialdea eta uholdeen kontrako babeslanak eraikitzeak ibaiaren ibilguan eta uholde-erregimenean izan lituzkeen ondorio hidraulikoak antzematea. Ebroko Ur Konfederazioak, azterlana egitean aplikatu beharreko metodologia Jabari Publiko Hidraulikoa Kudeatzeko Zuzendariorde

Nagusaren gomendioekin bat datorrela eta Zerbitzu Teknikoen ustez egokiena dela adierazi ondotik, bere iritzia, labur esanda, hauxe dela dio: proposatutako babes-lan horiek baimena jaso lezakete, Arakil ibaiak urak hustutzeko erabiltzen dituen bide nagusietako batetik kanpo leudekeelako; babes-lan horiek urak hustutzeko proposatutako den eta planoetan ageri den bide nagusi horren mugetan eraiki beharko direla, eta azkenik, bide horren barrenean sarturik dagoen aldean erabilerak ibaia-ibilguaren hustutzeko ahalmenean eragirik edukiko ez dutenak baizik ez direla izanen.

2) Agerraldia egin ondoren, Zangituko meandroa sartu da Plan Sektorialaren eremuan, eta hirigintza planeamenduko agiri berria egin behar izan da.

Era berean, bilerak egin dira Urdiain eta Altsasuko Udalen ordezkariekin, egoeraz eta haren bilakaeraz mintzatzeko.

3) Urdiain-Altsasuko industrialdeko udalez gaindiko plan sektoriala 2000ko martxoaren 3an igorri da izapidatzeko, eta honen atzetik urbanizazio proiektua eta desjabetzapenerako eta obren adjudikaziorako prozedurak etorriko dira. Aurreko etapetan gorabeherak gerta daitezkeela ahaztu gabe, lehendabiziko fasearen urbanizazio lanak 2001eko udaberrian hasiko direlakoan gaude.

Lanak etapetan eginen dira, agerraldian azaldu ziren arazoietan oinarriturik.

Iruñean, 2000ko martxoaren 6an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Eskualdeetako industrialde guztietan gas hornidura izateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak eskualdeetako industrialde guztietan gas hornidura izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak eskualdeetako industrialde guztietan gas hornidura izateari buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna:

Politika energetikoaren helburuetako bat da egitura aldatzea dibertsifikazioari begira, bereziki petroliotik heldu diren produktuak baztertzen eta ordeztzen joateko.

Ildo honetan, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua gogoz ari da gasa sartzaren alde, azpiegiturak eraikitzea sustatuz eta gasaren kontsumoa bultzatuz. Horretarako, finantza eta zerga arloetako neurri batzuk ezarri ditugu eta, ondorioz, Nafarroa da, gaur egun, Espainiako autonomi erkidegoetan lehendabizikoa gasari dagokionez, azpiegituren garapenean nola egituran duen parte hartzean.

Azpiegiturak garatzeko oreka tekniko-ekonomikoa hauen menpe dago: kontsumo potentziala, eskaera erreala eta guneen kokapena, bai eta gas naturala banatzeko sare orokorrarena ere.

Industrialdeei (ez herriei ezta lantegi isolatuei ere) dagokienez, honakoek dute gasa sartuta:

Eskualdeetako industrialdeak

Industrialdearen izena	Herria
Alkaiaga	Lesaka
Montes de Cierzo	Tutera
Arazuri-Orkoien	Arazuri-Orkoien
Buñuel	Buñuel

Comarca I	Pol. Agustinos
Iperategi I	Orkoien
La Nava	Erriberri
Rocaforte	Zangoza
Caparroso	Caparroso
San Adrián Zaharra	San Adrián
Villatuerta	Villatuerta
Agoitz	Agoitz

Horrez gain, 2000. urtean honako hauetan sartuko da gasa: Potasas, Tuterako Montes de Cierzoren zabalunea eta Las Labradas, eta Ezkirotz.

Udal industrialdeak

Ibarrea	Altsasu
Ondarria	Altsasu
Arguedas	Arguedas
Azagra	Azagra
Uharte-Arakil	Uharte-Arakil
Iperategi II	Orkoien
Irurtzun	Irurtzun
Lakuntza	Lakuntza
Lodosa	Lodosa
Martzilla	Martzilla
Mendabia	Mendabia
Mélida	Mélida
Milagro	Milagro
Azkoien	Azkoien
Ribaforada	Ribaforada
San Adrián Berria	San Adrián
Valtierra	Valtierra
Villafranca	Villafranca

2000. urtean, udal industrialde hauetan sartuko da gasa: Cascante, Tutera, Beriain eta Funes.

Pribatuak

Abaco	Tafalla
Antsoain	Antsoain
Areta	Uharte
Egues	Egues
Plazaola	Aintzoain
Aintzoain	Berriobeiti
Talluntxe	Noain
Tutera	Tutera

Irizpide horiek berak erabiliko dira aurrerantzean ere.

Iruñean, 2000ko martxoaren 6an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Nuestra Señora de los Ángeles haurtzaindegiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nuestra Señora de los Ángeles haurtzaindegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Iruñeko Nuestra Señora de los Ángeles haurtzaindegiari buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

1. Descalzos kaleko haurtzaindegia heldu den ikasturtean zabaltzeko erabakia, irmoa da?

Ez. Kaltetutako gurasoekin bilera bat egin ondoren hartuko da erabakia.

2. Hasierako planteamendua haurrak urtarri-aldatzea baldin bazen, zer irizpideri jarraikiz hartu da erabakia?

3. Kaltetuekin bat etorri hartu al da erabakia?

4. Gurasoei hala agindu arren, zer dela-eta ez da lehiaketarik egin urtarriaren 1etik Descalzos kaleko ikastetxeko ekipamendua erosteko?

1999. urtean egin ziren lanen helburua ikastetxea LOGSEra egokitzea zen. Hasiera batean lan horiek irailerako amaiturik behar zuten, baina teilatua ere konpondu behar izan zen, eta aurreikusirik ez zegoenez lanen amaiera atzeratzea ekarri zuen, aurtengo urtarrila arte, zehazki.

Hori alde batera, haurtzaindegiko umeen gurasoek eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak solasaldi batzuk izan zituzten azaroan, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko zenbait kide bertan zirela, eta orduan eman zen ikastetxearen ekipamendurako programaren berri, eta adierazi lanak amaituta betetzen hasiko zela programa hura, une hartan teilatuko lanak egiten ari baitziren.

Bilera haietan aipatu zen urtarriaren hasieran hasiko zirela ikastetxeko ekipamendua kontratazeko tramite administratiboak.

Hasiera batean, ekipamendu hori osotara eta espediente bakar batean tramitatzea pentsatua zegoen; zenbatekoa 20 milioi ingurukoa zenez, aginduzkoa zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

Era berean, adierazi zen tramite horri hasiera eman ondoren, dena behar bezala joanez gero, eta adjudikazio hartzaileak lehiaketan aurreikusitako epean entrega egitea baldin bazuen, ordurako apirilaren amaiera izanen zela; izan ere, hau bezalako beste lehiaketa batzuetan, adjudikazio prezioa txikiagoa izanik ere, epeak horiexek izan dira. Apirilean, beraz, gurasoekin beste bilera bat egitekotan gelditu ginen, orduan erabakitzeko ikastetxea maiatzean irekitzea komeni zen ala ez.

2000. urteko ekitaldia abian, Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuko talde teknikoak ekipamendua kontratatzeko plegu tekniko eta administratiboak eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko kontratazio iragarkia prestatu zituen.

Baina zenbait gertaerak egoera aldarazi zuten. Batetik, 2000. urteko aurrekontuaren disposizioa, gogoratu behar baita urtarriaren egiten direla ekitaldia ixteko eragiketak, eta ez dago ekitaldi berriko kontabilitate-idazpenik egiterik aurreko ekitaldia itxirik egon arte.

Bestetik, urtarriaren aldizkarian argitaratzeko itxoin beharreko denbora hilabetekoa zen, beraz,

otsailaren bigarren hamabostaldian argitaratzea zen aurreikuspena.

Eta azkenik, garrantzitsuena: lehiaketa hasiera batean pentsatua zegoen bezala, ekipamendua mota ezberdin askotako gauzek osatzen zuten, eta horrek baldintza teknikoek plenguak prestatu eta ondoren ulertzeko zailtasun handiegiak eragin zitzaizkien. Gogoan hartu, adibidez, honakoak sartzen direla: bulegoko altzariak, haurrendako altzari bereziak, etxeko tresnak, gune desberdinetarako altzariak, sehaskak, haurrendako jostailuak, zurgin lanak neurrian egitea, ikasgeletarako eta sukalde eta bainugeletarako osagarriak, material didaktikoa, etab.

Aurrekoan oinarriturik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari proposatu zitzaion lote homogeneotan banatzea ekipamendua, baldintza teknikoek plenguak ulertterazak eta bateratuak izan zitezeten, batetik, eta ekipamendu desberdinetan espezializatuak ez ziren pertsonak edo enpresak lehiaketara aurkez ez zitezeten. Adibidez, etxeko tresnekin aritzen den enpresa batek har zezakeen lehiaketa osoaren adjudikazioa, haurrentzako jokoak edo material didaktikoa barne.

Bestalde, lote homogeneotan banatzeak kudeaketa bizkortzen du, zeren 5 milioi pezetatik beherako zenbatekoetan ez baita beharrezkoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematea, eta adjudikazioa egiteko nahikoa izaten baita prentsan argitaratutako prozedura negoziatua erabiltzea. Horrez gain, lotearen zenbatekoa bi milioitik beherakoa baldin bada, hiru aurrekontu izatea aski da adjudikazioa egiteko.

Prozedura horrek, beraz, lehiaketaren gaineko kontrola areagotzeko eta ekipamendua aurreikusitako epeen barrenean edukitzeko bide ematen zuenez, sistema hori aukeratu genuen.

Ekipamenduaren zati bat erosirik daukagu dagoeneko, baina haurtzaindegian, barnean, zenbait gauza konpondu beharra dago oraindik, eta konponketa horiek amaitu arte ez da komeni altzariak sartzeari, hondatzeko arriskua baitago lanak egiten diren bitartean.

Iruñean, 2000ko martxoaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Iruñeko autobus geltokia jartzeko lekuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Iruñeko autobus geltokia jartzeko lekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Iruñeko autobus geltokia jartzeko lekuari buruz 2000ko otsailaren 9an aurkeztutako idazkian dio "Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak uste kontrajarriak dituztela geltokia hiriaren erdialdean egoteari buruz –komunikabideen bidez jakin dugu iritzi ezberdinak dituztela–. Iruñeko Udala hiriaren erdialdean kokatzearen aldekoa da eta Nafarroako Gobernuak, aldiz, nahiago du garraio anitzeko gune hori hiriaren kanpoaldean, Etxabakoitzen hain zuzen ere, jarri". Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazi behar du, horren aurrean, ez dagoela, idazki horretan esaten den bezala, iritzi desberdinek, zeren urtarrilean bi erakundeek egindako bilaren ondoren, Iruñeko alkateak eta honako hau izenpetzen duen kontseilariak autobus geltokia jartzeko lekua irizpide teknikoaren menpean utzi eta bi aukerak, Etxabakoitz eta hiriaren erdialdea, mantendu baitzituzten. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak dokumentu bana eskatu dutenez, erabakia atzeratu egin zen horien emaitzak jakin arte. Horixe da Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalaren Gobernu Taldeak eta Unión del Pueblo Navarro Udal Taldeak duten jarrera. Baina, Udala korporazioa denez, udal talde batzuk ez dira ados egonen, beharbada, edo, alde aurretik eta dokumentu horiek ezagutu gabe, aukera bat gogokoagoa izanen dute bestea baino.

Bestalde, idazkian aipatzen diren gaiei dago-kienez, hona hemen kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al da une honetan autobus-geltokia Iruñaren kanpoaldean jartzearen aldeko txosten teknikorik?

Autobus geltokia jartzeko erabakia garrantzi

handikoa da, gizartean eragin handia duen azpiegitura bat eraikitzea dakarrelako berarekin.

Bistan da Iruñeko autobus geltokia jende askok erabiliiko duela, Iruñeko eta Iruñerriko biztanleek ez ezik Nafarroa osokoek eta kanpotik heldu direnek ere.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalarekin ongi koordinaturik, geltokiaren eredu eta kokapena erabaki beharko ditu hurrengo hila-beteotan.

Une honetan, administrazio bat baino gehiago ukitzen duten zenbait azterlan tekniko prestatzen ari dira.

Gai honekin zerikusi zuzenena dutenak honakoak dira: Mugimenduen Azterlana, Nafarroako Gobernuak sustatua, Trafikoko azterlan bat, Iruñeko Udalak sustatua eta geltoki berriaren azterlan informatiboa, Sustapen Ministerioak sustatua Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmen bidez.

2.- Nafarroako Gobernuaren ustez, autobus-geltokia Iruñaren erdialdean kokatzeak hirigunea aldatzea ekarriko luke?

Nafarroako Gobernuak, zehazki, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, ez ditu bere gain Hiri Antolamenduaren arloko eskumenak, beraz horri buruzko iritzi formala ematea ez da egokia.

Halere, Gobernuaren eta Udalaren arteko batzorde teknikoan, hipotesi guztiak aztertuko baititu, dagokion erabakia hartzen lagunduko duten aldagai guztiak hartuko dira kontuan: trafikoa, garraioa, sarbideak eta hiri antolamendua.

3.- Geltokia hiriaren erdialdean kokatzearen alde azaldu da Iruñeko Udala. Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia horri buruz?

Aurreko erantzunetan adierazi bezala, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak ados jarri dira gaur egungo lan-ildoan hipotesi guztien baldintza tekniko eta sozialak garatu eta aztertzea izan dadin, eta beraz, ez da egokia une honetan iritzirik adieraztea balizko kokapenei buruz, oraindik erabakirik hartu ez delarik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 9an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Telekomunikazio Zerbitzuak irekitako espedientei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Telekomunikazio Zerbitzuak irekitako espedientei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki telebistei buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Ireki al zaio espedienterik beste kateren bati araudia urratzeagatik?

Galdera egin duen foru parlamentariaren idazkiak gezurrezko abiapuntu batean oinarritzen da "Nafarroako Gobernuko Telekomunikazio Zerbitzuak espedientea ireki dio Teleiruña S.A.ri, araudia urratzeagatik eta Iruñean telebistako seinalea legez kanpo jaulkitzeagatik" dioenean. Honakoa izenpetzen duen kontseilariak ez du, gaurko datarekin, Teleiruña, S.A.ri ez eta beste inongo toki

telebisiori ere Nafarroako Gobernuak zehapen espedientea ireki izanaren berri.

2. - Gaur egun zenbait testu arau-emaile falta dira, eta horiek gabe ezin da ikus-entzunezkoen sektorea arautu. Ba al daki Nafarroako Gobernuak noizko prestatuko dituen Sustapen Ministerioak?

Nafarroako Gobernuak ez daki Sustapen Ministerioak noizko prestatuko dituen arau horiek. Nolanahi ere, gure ustez nazioko Gobernuak gaur egungo arau-esparrua aldatzeko asmoa du gai honetan.

3.- Nafarroako Gobernuak parte hartu al du autonomia erkidegoek lehiaketa bidez eman ditzaketen frekuentziak zeintzuk diren zehazten duen plan tekniko hori egiterakoan?

Galdera honetan aipatzen den plan teknikoa ez da egin oraindik, eta beraz Nafarroako Gobernuak ez du parte hartzerik izan prestatu ez dagoen zerbaitetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 7an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Lan-osasun arloko kontrol-bideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Lan-osasun arloko kontrol-bideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin zuen 2000ko otsailaren 11n. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Lan-istripuak gutxitu edo desagertarazteko, 10/98 Foru Legearen e) idatz-zatia nahikoa dela uste al du Nafarroako Gobernuak?

Legearen ikuspuntutik, kontratazio publikoetarako nahikoa da idatz-zati horretan adierazitako betebeharra.

Halere, hemendik gutxira araua garatuko da, Foru Dekretu edo Agindu bidez, eta hala egiten denean beharrezkoa izanen da gehiago zehaztea.

Nolanahi ere, aipatu beharra dago lan istripu gehienak Administrazio Publikoen kontratu ez besteetan gertatzen direla, hortaz, jarduketa horiek arazo orokorraren alderdi txiki batean baidarik ez lukete eragina.

2.- Kontratistek obra jakin baten adjudikazioa hartzeko aukera izateko lan-osasunari dagozkion agiriak aurkeztu eta zer kontrolbide ditu foru administrazioak agiri horiek zuzenak direla egiaztatzeneko?

Obren kontratuak eta gainerakoak bereizi behar dira, arazoak desberdinak direlako.

Eraikuntza lanek berriazko araudia dutenez, eraikitze prozesuaren faseetan laneko segurtasunaz eta osasunaz egiten den jarraipena zuzenagoa da, Administrazioaren beraren jarduketan bidez eta obrak berak bere aldetik kontratatutako segurtasuneko koordinatzailearen bitartez (Herri-lanak eta beste zerbitzu batzuk).

Bestelako kontratuetarako, arrisku gutxiagokoa izaten direnez gehienetan, zailagoa da jardutea. Lan arloko legedian ez dago laneko segurtasuna eta osasuna baloratzeko erregistro edo agiri bakarra, tributuen arloan edo gizarte segurantzarenean daukagunaren modukoa.

Kasu honetan, zeharkako jarraipena egin daiteke, hauetaz baliatuz: Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 23. artikuluan eskatzen den dokumentazioa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 10. artikuluan aurreikusten diren antolaketa moduetakoren bat eta Erregelamendu horren V. kapituluaren aipatzen den auditoretza egitea. Aurreko galderan hizpidera ekarri ditugun dekretu edo aginduetan zehaz litezke puntu horiek.

3.- Lan-istripuak ez dira gutxitzen ari. Zer neurri ari da hartzen Nafarroako Gobernua lan-ezbehar tasa kontrolatzeko?

Osasun kontseilariak eta Industri, Merkataritza eta Turismo kontseilariak Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean egin zuten agerraldian laneko segurtasun eta osasun arloetan egin beharreko jarduketan berri eman zuten, eta bi alderdi nagusi azpimarratu zituzten bereziki: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenaren arloko hitzarmena eta jomugako enpresen programa.

Hitzarmen hori denbora gutxi barru izenpetuko dela uste dugu.

Jomugako enpresen programa, berriz, abian da joan zen urtearen amaieraz geroztik. Zenbait enpresa zehatz hautatu eta haietara zuzentzen dira jarduketak. Hauexek izan dira enpresak auzeratzeko irizpideak:

– Lan-istripuen kopuru handia, dagokien jardueran.

– Funtsezko eskasiak laneko arriskuen prebentzioan.

– Arrisku bereziki larriak.

Programa horretan Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak eta Nafarroako Lan Osasuneko Institutuak hartzen dute parte.

Nafarroan, 1999an lan-ezbeharren kopuruak gora egin badu ere, 1998. urtearekin alderatuta, garrantzitsua da ikustea joera hori 99ko bigarren seihilabetean nola aldatu den. Igoera hori, gainera, kopuru erlatibo baina, kopuru absolutuei dagokie, hau da, eragin indizeei.

1999ko hiruhilabeteak eta 1998koak banan-banan konparatzen baditugu, lanaldian baja ekarri zuten lan-ezbeharrek, horiexek baitira laneko arriskuei aurrea hartzeko egiazko jarduketak egiteko aukera ematen dutenak, igoera hauek izan zituzten, portzentajetan:

1. hiruhilabetea: + % 17,25
2. hiruhilabetea: .+ % 17,68
3. hiruhilabetea: + % 9,33
4. hiruhilabetea: + % 8,09

Horren arabera, 1999ko uztailetik aurrera kopuruak gora egiteko joera nabarmen hausten da. Halaxe gertatzen da, halaber, eragin indizeak alderatzen baditugu, lehenbiziko hiruhilabete an igoera % 11,23koa izan bazen ere, urte osokoa % 6,28koa baita, urte hasierako zama barne.

Konparazioan oinarrituriko datuak are garrantzitsuagoak dira istripu larrien eta heriotza eragin duten istripuen kasuan. Portzentajetan, alde hauek ikusten dira:

1. hiruhilabetea: + % 20
2. hiruhilabetea: + % 22,22
3. hiruhilabetea: – % 12,24
4. hiruhilabetea: – % 17,54

Multzo honetan, beraz, 2. seihilabete an istripu larrien kopuruak eta heriotza eragin dutenenak behera egin zuten.

Hirugarren eta laugarren hiruhilabeteetan gertatutako aldaketetan, hau da, istripu guztien kopuruak gora egiteko joera gelditzean eta istripu larrien eta heriotza eragin dutenen kopuruak behera egitean, zenbait jarduketak eragina izanen zuten, besteak beste, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauen ezarpenaren jarraipena egiteko Nafarroako Lan Osasuneko Institutuak egindako programa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren PREVE plana, eta jomugako enpresen programa hasi izana.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 6an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Gai transgenikoak erabili eta kontsumitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak gai transgenikoak erabili eta kontsumitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentuko Taldeako foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak gai transgenikoak erabili eta kontsumitzeari buruzko galdera bat egin zuen 2000ko otsailaren 19an. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Bere egiten al ditu Nafarroako Gobernuak, osasun publikoaz denaz bezainbatean, elikagai transgenikoak erabili eta hartzeak sor ditzakeen zalantzak?

Ez, badirelako arau batzuk, beste alderdi batzuen artean, genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabiliz egindako elikagaiak Europan merkaturatzea baimentzeko mekanismoa erregulatzen dutenak. Arau horietako batzuk hauexek dira: E.B.ko estatu kide guztietan zuzenean aplikatu beharreko 258/97 Erregelamendua, elikagai berriei eta elikagaien osagai berriei buruzkoa, eta ekainaren 3ko 15/1994 Legea, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera mugatuaren, borondatezko liberazioaren eta merkaturatzearen araubide juridikoa ezartzen duena, Garatu eta Betearazteko Erregelamendu Orokorra onetsi zuena (Europako Batasuneko 90/219/EEE eta 90/220/EEE zuzentarauen transposizioa).

Elikagai mota honen arriskuen ebaluazioak, E.B.ean merkaturatzeko baimena jaso aurretik eginik, bermatzen du haien kontsumoak baldintza hauek betetzen dituela:

– ez du inolako arriskurik ekartzen kontsumitzailearentzat.

– ez da nahasbidea kontsumitzailearentzat.

– ez da bera osagai izanen duten elikagaiez edo beste osagaiez oso bestelakoa.

2.- Aztertzen ari al da Nafarroako Gobernua elikagai transgenikoak landatzeko moratoria bat ezartzeko aukera harik eta horien ondorioak argitu arte?

Nafarroan landatzen diren organismo genetikoki eraldatuek beraien helburuaren arabera eskuduna den organoaren baimena jaso behar izan dute aurretik, beraz, aurreko galderan aipatu diren arauetako berme guztiak bete dituzte. Horrexegatik ez dugu ikusten arrazoirik horien laborantza galarazteko.

1999. urtea arte Europako Batasunean merkaturatzeko baimena jaso duten organismo genetikoki eraldatuak hauexek dira:

Txikoria: glifosinato amonikoarekiko tolerantzia

Artoa: zedenarekiko erresistentea.

Artoa: glifosinato amonikoarekiko erresistentea

Soja: glifosatoarekiko tolerantzia

3.- Prestatu al du Nafarroako Gobernuak inolako neurririk kontsumitzaileengan aldaketa genetikoen bidez prestatutako gaiak erabiltzeak izan ditzakeen ondorioak direla-eta?

Lehenbiziko galderaren erantzunarekin ulertzen da produktu hauek E.B.an merkaturatu ahal izateko, haien segurtasuna bermatzen duen baimen espresua eskuratu behar dutela eta, beraz, ez dute kalterik eragiten kontsumitzaileen osasunean eta ez da beharrezkoa informazio kanpainarik egitea.

4.- Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak etiketatu bat exijitzea manipulatu egon litezkeen gaien osagaiak zehatz-mehatz ezagutzeko?

Europako Batasunean nahiko arau badira mota honetako osagaien etiketatua erregulatzeko. Kontseiluaren 1139/98 Erregelamenduak ezartzen du nahitaezkoa dela "genetikoki eraldaturiko artorekin (edo sojarekin) egina" adieraztea GEOak erabiliz eginiko elikagaien etiketatuan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Ernalkortasun-arazoak dauzkaten bikoteen kolektiboari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak ernalkortasun-arazoak dauzkaten bikoteen kolektiboari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokratikaren Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak ernalkortasun-arazoak dauzkaten bikoteen kolektiboari buruzko galdera bat egin zuen 2000ko otsailaren 19an. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al da Osasunbidean zerbitzu espezializaturik ernalkortasun arazoak dituzten bikote horiei laguntza emateko?

Bikoteen ernalkortasun arazoei, gaur egun, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bi fasetan heltzen die.

Lehenbiziko fasean, ginekologoak edo andrologoak azterketa egiten dio bikoteari, ernalkortasun arazoaren arrazoiak zein diren zehazteko. Fase hau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzuetan egiten da.

Bigarren fasean, ernalkortasun arazoaren arrazoiak behin zehazturik, eta tratamendua jartzea baldin badago, ernaltzen laguntzeko zentro batera bidaltzen da bikotea, teknika egokienaren bidez tratamendua eman diezaioten.

2.- Zerbitzu espezializaturik ez badago, zergatik ez dago halako beharrezko erantzuna emateko zerbitzu bat? Nola erantzuten zaie halako bikoteen eskariei?

Ez dago zerbitzu espezializaturik arazoi kuantitatiboengatik, biztanle kopurua ez baita nahikoa teknika hauek ezarpena justifikatzeko. Arrazoi kualitatiboak ere badira, alegia, behar bezalako

erantzuna emateko beharrezkoa dela esperientzia egokia, tratatu beharreko bikote kopurutik heldu dena.

Prestazio eta Itun Zerbitzua arduratzen da bikote hauen eskaeraz, eta hara bidaltzen dituzte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialistek; ondoren, aipatu zerbitzutik Donostiako Quirón Erietxera bideratzen dituzte, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak itun bat baitauka entitate horrekin.

3.- Ba al dago aurrekontuan diru nahikorik bikote horien eskariei aurre egiteko? Zein kontusaili daude atxikirik diru horiek?

Aurrekontuetan badago kontu-sail bat horretarako; 1998an, zehazki, 9.586.750 pezeta, 1999an 28.408.600 pezeta eta 2000rako 30.000.000 pezeta daude aurreikusirik. Zenbatekoak nahikoa dira eskariari erantzuteko.

Prestazio hauek kontu-sail zehatz honetan sartzen dira: 48000-52202-2590-4112 "osasun laguntza beste zentro batzuetan" izenekoa.

4.- Nafarroako Gobernuaren ustez, ez al litza-teke interesagarria izanzen zerbitzu bereki bat sortzea bikote horien eskariei erantzuna emateko? Ez al da jaiotzak bultzatzeko modu aproposa haurrak izan nahi dituztenei behar bezalako zerbitzu bat eta laguntza espezializatua ematea?

Osasun Departamentuaren interes nagusia, egun, ernalkortasun arazoetarako atal bat edukitzea da, behar diren teknikak garatzen joan dadin, kalitate zientifiko-teknikoa eta emaitzen kalitatea izanik muga bakarrak. Muga horiek gure biztanle kopuruak eta kopurutik heldu diren kasu mota zehatzek ezarriko dute. Eskaria gero eta handiagoa da eta gure zerbitzuak horren arabera moldatu beharko ditugu.

Atal hori jaiotzak bultzatzeko politiketan kontuan hartu beharreko baliabidea izanzen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 3an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Zenbait aurrekontu-ekitalditan zehar zerga iruzurraren gutxi gorabeherako zenbatekoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak zenbait aurrekontu-ekitalditan zehar zerga iruzurraren gutxi gorabeherako zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zenbait aurrekontu-ekitalditan zehar zerga iruzurraren gutxi gorabeherako zenbatekoari buruzko galdera bat egin eta idatzizko erantzuna eskatu zuen. Hona hemen Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1997tik ez da kalkulu berririk egin Nafarroako Zerga iruzurrari buruz. Badakigu, ordea, iruzur horren kontrako ekintzek kontzeptu horretan biltzen den diru kopurua % 52, 2 handitu dutela, eta % 24,5 administrazio ekintzei dagokienez.

Talde sozialistarekin erdietsitako hitzarmenean ez da ageri zerga iruzurra gutxitzeko neurri berezirik. Halere, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ekimen hauek gauzatu ditu:

1. Nafarroako Tributu Ogasuna sortzea.
2. Ikuskaritza eta ikerketa neurriak areagotzea, aurreko puntuan aipatu den bezala.
3. Zenbatespen objetibo bereziaren erregimenaldatzea.
4. Departamentuen arteko azterlanei ekitea, kudeaketari buruzko informazioa eta tributuei buruzkoa koordinatzeko.
5. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren zirriborroa eta Zergadunaren Estatutua prestatzea.
6. Jendearendako laguntza eta arreta eginkizunak eta ikerketakoak pixkanaka bereizten joatea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 14an

Ekonomi eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokratikaren Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeari buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Litekeena da Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzea. Zein da Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak horri buruz duen jarrera?

Errioxa Argentinako Errepublikako unitate administratibo baten izena da. Andeen mendikatearen oinetan dago.

Ez dago hura sostengatzen duen jatorrizko izenik, eta izen geografiko gisa ere ez da inon arautu. Mahastizaintzaren garrantzia ez da oso handia (zortzi mila hektarea inguru) eta “Famatiano arana” izenekoan dago nagusiki. Mahats mota zabalduenak “Torrontés Riojano” izena du, eta zuri kolorekoa da.

Europako Kontseiluaren 2392/89 (EEE) Erregelamenduak ezartzen du ardo inportatuendako ezin izanen direla erabili vcpd direlakoak (zenbait eskualdetan egiten den kalitatezko ardoa, Espainian jatorri-izenarekin bat datorrena) izendatzeko baliatzen diren unitate geografikoen izenak. Arau honek salbuespenak onartzen ditu, ardo inportatuaren izena usadiozko eta ohiko erabileretan oinarritzen denean, eta izenaren erabilera herrialde eskatzaileak legeztaturik dagoenean.

Argentinako agintariek, beren aldetik, behin eta berriz eskatu diet Espainiako agintariei eta Elkarteko agintariei, hango ardoak Errioxaren izenarekin sartzeari Europako Elkartean, Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Alderdien

gaineko Akordioaren izenean. Akordio hori Merkataritzaren Mundu Erakundeko (OMC) kide guztiek bete beharrekoa da.

Akordio horren 3. sekzioaren gaia ohar geografikoei buruzkoa da, eta ardo eta pattarren ohar geografikoen kasurako xedapen bereziak ditu. Argentinarek, zehazki, akordioaren 3. ataleko 23. artikuluan, ohar geografiko homonimoen babes eta erabilerarako baldintzak ezartzen dituen horretan, oinarritzen dituzte haien erreklamazioak.

Orain arte Argentinak ez du erreklamaterik izan Europako Batasunean Espainiako Errioxaren ohar geografiko homonimoa daraman beraien Errioxaren babesa, haien kalitatezko izendapenak babesteko legerik ez zutelako, eta ADPIC Akordioak ezartzen duela ez dagoela babestu beharrik jatorrizko herrialdean babesturik ez dauden ohar geografikoak.

Egoera, ordea, aldatu egin da 1999ko urriaren 12an Argentinako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 25.163 Legeari esker; “Argentinako ardoak eta ardo-pattarrak izendatu eta aurkezteko arau orokorrak ezartzen dituen Legea” izenarekin, jatorri-izenak onesteko prozedura bat finkatzen du.

Lege hori garatzeko, Mahastizaintza eta Ardogintzako Institutu Nazionalak 23/99 Ebazpena eman zuen argitara, mahats ekoizpenerako gaitasunak direla-eta, jatorri-izen kontrolatua edo ohar geografikoa jaso dezaketen eremu geografikoen edo aurretiko ekoizpen eremuen oinarritzko errolda onesteko. Errolda horretan “Errioxa” izen geografikoa sarturik dago.

Berriki, Argentinak aipatu lege hori eta 23/99 Ebazpenaren bidez onesteko errolda igorri dizkio Merkataritzaren Mundu Erakundeari, eta jakinarazpen horren kopia Europako Batzordeari, egotera berria ezagutarazteko.

Argentinan Errioxa izen geografikoa izateak Errioxa Jatorri-izen Kontrolatuari ekarri liezazkiokeen arazoengatik, Espainiako administrazioak arreta handia jarri du gai horretan, eta Espainiaren jarrera, Errioxa Jatorri-izen Kontrolatuaren aldekoa, jakinarazi die Batzordeari eta zuzenean Argentinako agintariei. Horri esker, Danimarkan, Erresuma Batuan edo Suezian, inportatzaile handiak baitira, Argentinatik “Rioja del Rey” edo “Viñas Riojanas” bezalako markekin heldu ziren ardoak merkaturatzea galarazi zen, marka horiek eta Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuak babestutako ardoak nahasteko arrisku zuzena egoteagatik.

Kasu horietan, arazoa konpondu da Espainiako Administrazioaren, Batzordearen eta herrialde inportatzaileetako agintarien arteko koordinazio ona dela medio.

Gai honetan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren jarrera da Espainiak gogor egin behar duela negoziazio gune guztietan, eta defenditu jatorri-izenaren usurpazioaz ari garela eta ez homonimizaz.

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, Hegoameriketako herri horren erabakiak ekoizle nafarrari kalte egin al diezaioke?

Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuak Nafarroako zortzi herritako mahastiak hartzen ditu, eta erregistratutako ekoizpen-hektareak, guztira, 4.548 dira, hau da, Jatorri-izen Kontrolatua inskribitutako ekoizpen-mahastien % 9,3.

Mahasti hauekin, Nafarroan, 1999/2000ko kanpainan 10.279.447 litro ardo babestu dira, Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuak orotara babestu dituen 216.241.745 litroen % 4,7.

Argentinako Errioxako Jatorri-izenik balego, Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuari, oro har, kalte egin liezaiokeen neurrian egin liezaieke Nafarroako ekoizleei ere, hauei dagokien zatian.

3. Zer neurri hartu asmo dute Nafarroako Gobernuak eta "Errioxa" jatorri-izenaren Kontseilu Arau-emaileak aukera hori dela eta?

Estatuko Administrazioak nekazaritza, abeltzaintza eta mendien alorreko eginkizunak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeari buruzko abenduaren 18ko 2654/1985 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, jatorri-izenen babesa esparru nazionalean eta nazioartekoan, eta nazioarteko harremanak jatorri-izenen arloan Estatuko Administrazioari dagozkion eginkizunak dira, are gehiago Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuaren kasuan, hiru erkidegoren artean banaturik baitaigo.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eginbeharra da arazoaren aurrean

erne egotea eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari eskatzea Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuaren alde egin dezala, eta aldi berean, Kontseilu Arauemaileari laguntzea izendapena duten autonomia erkidegoei egiten dizkien proposamenetan.

Ildo honetan, 1999ko urriaren 28an Kontseilu Arauemaileak hala eskatuta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari zuzendu zitzaion, 1999ko azaroaren 4an, Errioxako Jatorri-izen Kontrolatuaren interes eta eskubideen alde esku har dezala eskatzeko, behar den esparruan, "ez baita bidezkoa izendapen honek munduko merkatuetan egin duen lanari eta ibilbideari bizkarroiak atxikitzen saiatzea, kontsumitzailearentzat nahasbide izan daitekeen izenen bat etortzeaz baliatuz".

Ministroak, bere erantzunean, gai honen segimendua arreta bereziaz egiteko konpromisoa hartu du, Argentinarekiko bi aldeetako harremanei eta Bruselan tramitatzen diren gaiei dagokienez, eta halaber, alde askotako foroetan, Merkataritzaren Mundu erakundearen kasu.

Kontseilu Arauemaileak, bere aldetik, Jatorri-izen Kontrolatua interesak dituzten hiru erkidegoetako Nekazaritza kontseilariari laguntza eskatzeaz gain, Errioxaren marka erregistratu du izendapenerako garrantzi ekonomikoa duten 27 herrialdetan, Txile barne, eta gauza bera egitekoan da beste 12 herrialdetan, besteak beste, Brasil, Uruguay eta Paraguay. Azken herrialde hauek, eta Txile ere, Mercosurreko kideak dira. Jarduketa honek izendapena gordetzeko bide emanen du, markei buruzko legeen babesean bada ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeko proiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 21eko 18 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Argentinan “Errioxa” jatorri-izena sortzeko proiektuari buruzko galdera bat egin zuen. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer egin du zure Departamentuak Nekazaritza Ministerioaren aurrean sektorea defendatzeko?

1999ko azaroaren 4an Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura ministroarengana jo nuen eskatzeko gai honetan esku har zezala, “Errioxa” Jatorri-izen Kontrolatuaren legezko interesen alde, zegokion esparruan.

Ministroak, bere erantzunean, gai honen segimendua arreta bereziaz egiteko konpromisoa hartu du, Argentinarekiko bi aldeetako harremanei eta Bruselan tramitatzen diren gaiei dagokienez, eta halaber, alde askotako foroetan, Merkataritzaren Mundu erakundearen kasu. Erakunde honek Merkataritzarekin Lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruz hartutako Akordioa, II. zatiko 3. sekzioan, izen geografikoez mintzatzen da, baita homonimoekin jokatzeko moduz ere. '

2.- Zer egin duzue auzi horrek gehien kalte litzakeen alboko erkidegoetako, hots, Errioxa eta EAeko nekazaritza arduradunekin batera?

Jatorri-izenak nazio mailan nola nazioartean defendatzea eta, halaber, gai honetako nazioarteko harremanak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari (MAPA) dagozkion eginkizunak dira.

Halere, interesak dituzten erkidegoen lana da erne egotea eta, egokia denean, MAPAri eskatzea bere eskumenak bete ditzan. Horixe da, hain zuzen, kontseilari honek orain arte egin duena.

Oraindik ez da beharrezkoa izan beste bi erkidegoekin batera aritzeko kudeaketarik egitea, baina jakin ahal izan dugu gai honen inguruan denok dugula jarrera bera.

3.- Institutuzio horietako arduradunekin oraindik kontakturik izan ez baduzue, ba al duzue horretarako asmorik?

Azaldutakoaren arabera, ez da aurreikusi beste hartu-emanik izatea, baina ez dira baztertzen, egoerak hala eskatuko balitu MAPAren aurrean guztion ahalegina batzeko, eta honek sostengua eskatzen badu laguntza emateko, autonomia erkidegoek ahal dugun neurrian.

4.-Gure Komunitateko lehendakariak orain dela gutxi adierazi du EAerekiko harreman oro hautsiko duela. Horrek eragotzi egin dezake arlo horri buruz ere harremanak izatea?

Inondik inora ere ez. Departamentu honen eskumenean barrenean, EAerekin interes komunak ditugun gaietan, hala nola Idiazabalgo jatorri-izenean edo Lekunberriko Institutu Laktologikoan, ohiko hartu-emanen eutsi diegu. Beste edozein interpretazio egitea ez da zuzena, eta errealitatea ez ezagutzearen ondorioa. '

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Arraza autoktonoen hobekuntza genetikoari buruzko galdera, hala behiei nola latxa ardi eta rasa ardiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak arraza autoktonoen hobekuntza genetikoari buruzko galdera, hala behiei nola latxa ardi eta rasa ardiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du arraza autoktonoen hobekuntza genetikoaren alorreko abeltzaintza-politikari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1.- Zure Departamentuaren ustez, nahikoa al da arraza autoktonoak –behi eta ardi rasa zein latxak– genetikaren aldetik hobetzeko egiten den ahalegina?

Arraza autoktonoak –behi eta ardi rasa zein latxak– genetikaren aldetik hobetzeko egiten den ahalegina, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ikusten da, berariazko zenbait lerrotan eta baita ITG Ganaderori egindako transferentzietan orokorrean esleitutako beste batzuetan ere.

Oro har, sinatzen duenaren aburuz, Nafarroako arraza autoktonoak egoki tratatzen dira, aurrekontuak ematen dituen aukerak kontuan hartuz.

2.- 2000 urtean zenbat diru jarriko du zure Departamentuak, bai zuzenean bai ITGen bidez, programetarako eta elkarretarako?

Hona hemen 2000. urtean behien eta ardien arraza autoktonoetara bideratzen diren aurrekontuak:

2.1. Ardi latxaren hobekuntza genetiko

– ITGren zerbitzuak ASLANari

- ITG Ganaderori egindako transferentzia arrunten bidez 9.849.684 pezeta

- Interreg-en bidez 4.400.000 pezeta
- Ernalkuntza artifizialeko zentruak 8.303.308 pezeta
 - Arraza autoktonoen hobekuntzak ITG Ganaderoren bidez

- Ardi latxaren hobekuntza genetiko 4.000.000 pezeta
- Ardi latxa hobetzeko aurrekontuak, guztira: 26.552.992 pezeta

2.2. Nafarroako arrazako ardiaren hobekuntza genetiko

– ITGren zerbitzuak ARANari

- ITG Ganaderori egindako transferentzia arrunten bidez 4.641.457 pezeta
- Interreg-en bidez 4.100.000 pezeta
- Ernalkuntza artifizialerako zentroa 2.767.770 pezeta
 - Arraza autoktonoen hobekuntzak ITG Ganaderoren bidez

- Ardi rasaren hobekuntza genetiko 5.000.000 pezeta
- GUZTIRA: 16.509.227 pezeta

2.3. Behiak

- Pirinioko behiaren sustapena 8.000.000 pezeta
 - Pirinioko behiaren hobekuntza genetiko.
 - ASPINari emandako dirulaguntza 11.000.000 pezeta
 - Pirinioko behiaren sustapena, bigantxak erosiz 3.000.000 pezeta
- GUZTIRA: 22.000.000 pezeta

3.- Zer aldaketa eman da aurrekontuetan sektore horretarako kontusailen kontsignazioan? Zergatik?

Aurrekontuko lerroa	1999	2000
– Arraza autoktonoen hobekuntza, ITGren bidez	10.000.000 PTA.	9.000.000 PTA.
– Pirinioko behiaren sustapena	6.000.000 PTA.	8.000.000 PTA.
– Pirinioko behiaren hobekuntza genetiko.		
ASPINari emandako dirulaguntza	10.500.000 PTA.	11.000.000 PTA.

– Pirinioko behiaren sustapena bigantxak erosiz		3.000.000 PTA.
GUZTIRA:	26.500.000 PTA.	31.000.000 PTA.

Aurrekontu Orokorretan 4.500.000 pezeta gehitu dira arraza autoktonoetarako, batez ere, Pirinioko aziendari emandako laguntzak, urtarrilaren 29ko 145/1999 Errege Dekretuak ekoizpen estentsiboko Espainiako behi arraza autoktonoak sustatzeko ezartzen dituenekin berdintzeko.

4.- Ardi latxa eta rasa genetikaren aldetik hobetzeko lanean ari diren elkarteek euren kexa azaldu dute euren finantziazioa hainbeste jaiteagatik. Egia al da hori? Hala bada, zer dela-eta kexatu dira?

Nafarroako aurrekontu orokorretan, joan den urtearekin alderatuta, 500.000 pezeta gutxiago daude ardi rasa eta latxa genetikoki hobetzeko. Dena den, elkarteetako idazkariei jakinarazi zaie lerro horretara transferentziak egiteko asmoa dagoela ezberdintasun hori konpentsatzeko, betiere aurrekontuaren garapenak horretarako aukera ematen badu.

5.- Zure Departamentuaren ustez, gure arrazak kanpokoekin lehian aritzeko adina aurreratu al da?

Behi eta ardien esnearen ekoizpenean eta baita haragiarenean ere, arraza asko daude eta bakoitzarekin konparaketak egitea ezinezkoa da. Bestalde, egon daitezkeen ustiapen sistemak faktore askoren menpe daude, izan ere, ustiapen sistema ultra-estentsibotik hasi eta ultra-intentsiboraino, mota akotako ustiapen sistemak baitaude eta kontuan hartu beharreko hainbat parametro.

Dena den eta oro har, arraza autoktonoak, landatarrak direlako eta gaixotasunekiko duten erresistentziagatik, ekoizpen estentsiboko sistemetan dira nagusi, eta ekoizpen handiko arrazek emaitza onak eragin ditzakete ustiapen intentsiboetan.

6.- Zure Departamentuaren ustez, zenbait jatorri izendapenetan bizi den tentsio giroa ekidin daiteke baldin eta Departamentua, beste administra-

zio batzuk bezala –Frantziako Aveyronekoak, esate baterako, urteak daramatzate horretan– arraza autoktonoak hobetzeko ahalegina egiten badu?

Ardi latxa genetikoki hobetzeko programa 1967an hasi zen. 7 artaldek eman zuten izena eta 493 ardi kontrolatu ziren.

Hazkundera geldoa eta progresiboa izan da, eta gaur egun 66 ustiategitako eta 22.113 ardiren esnearen kontrola egiten da. 1999an, ernalkuntza artifiziala garapen genetikoki azkarrerako metodo gisa erabili da 7.734 emerekin, guztira. Ardi latxa genetikoki hobetzeko programak garatzeko ASLANA elkarte dago. Elkarte horri aurrerago aipatutako bitarteko ekonomikoak esleitzen zaizkio.

Haziendaren orokortzea esnearen kontrolean, Frantziako aveyron eskualdean egin da lacaune arrazako haziendaren % 75 hartuz; Frantziako manech arrazako % 25 eta Nafarroako latxa arrazako % 17 gutxi gorabehera. Aveyron eskualdeko lacaune arrazaren eta Pirinio Atlantikoko manech arrazaren arteko ezberdintasuna, batez ere, horietako bakoitzean erabiltzen den ustiapen sisteman datza.

7.- Zure Departamentuak ba al du daturik beste administrazio batzuek –Frantziako Estatutukoek bereziki– euren arraza autoktonoak defendatu eta garatzeko egindako ahaleginarekin konparatzeko?

Frantziako Estatuak arraza autoktono asko ditu espezie ezberdinetan.

Departamentu honek ez du Frantziako Estatuak bere arraza autoktonoak babestu eta garatzeko erabiltzen dituen aurrekontuetako daturik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletako irakasleak Nafarroako Gobernuak bere menpean hartzeari eta horiek lan-araubideari eusteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletako irakasleak Nafarroako Gobernuak bere menpean hartzeari eta horiek lan-araubideari eusteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokratikoen Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin zuen Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletan lan-arau-bidea subrogatu eta hari eusteari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Amaiur, Hegoalde eta Axular ikastoletan zerbitzuetan aritzen diren irakasle finkoak funtzionario gisa sartu ziren Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen Estatutuak ezarritako araubidean, Iruñeko Udalak, 1997ko urriaren 31n

eginiko osoko bilkuran, hartu zuen erabakiaren bidez. Araubide horretan sartzeak 1998ko urtarrilaren 1ean hasi zen ondorio ekonomiko eta administratiboak izaten. Beraz, langile horiek Foru Komunitateko Administrazioari transferituz gero, funtzionarioen eskualdatzea izanen litzateke, eta ez lan-kontratadunen subrogazioa.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, langileen eskualdatzea gauzatzen bada, langile horiek maisu-maistren kidegoan sartuko ditu, horretarako egokia den lege-tresna erabiliz. Izan ere, halaxe egin zen Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko irakasleek funtzionario bihurtu zirenean ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen Lehen Xedapen Gehigarrian xedatutakoaz baliatuz. Horretarako, Hezkuntza eta Kultura Ministerioarekin batera jardun beharko litzateke, egun Iruñeko Udalaren menpean dauden irakaskuntzako funtzionario horiek dagokion kidegoan sartzeko behar den titulazioaren jabe direla behin egiaztatu ondoren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Venta de Judas-Oibar bideunea konpontzeko obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana foru parlamentari jaunak Venta de Judas-Oibar bideunea konpontzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokratikaren Elkargunea" Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak galdera bat egin zuen Venta de Judas-Oibar bideunea konpontzeko obrei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer dela-eta ez dira hasi bideune hori hobetzeko obrak?

Venta de Judas-Oibar bideunea zabaldu eta hobetzeko lanen kontratazioa bi arrazoirengaitik atzeratu da.

Lehenbizikoa.-Proiektu teknikoa aspalditik zegoenez prestaturik, eguneratu behar izan dugu.

Bigarrena.- Errepideen Plan Zuzentzailea betetzeko aurrekontu programazioa Nafarroako Parlamentuak urtero onesten dituen kontsignazioen arabera egiten da.

2.- Bideunea hobetzeko okupatu egin behar dira hainbat lurzati. Eman al zaie berandutzeari buruzko inolako argibiderik ukitutako Udalei?

Alde horretako udalekin eta, zehazki, Oibarko Udalarekin bilerak egin izan ditugu gai honen inguruan eta aldioro izan dugun informazioaren berri eman diegu.

3.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ustez, Parlamentuak berak onetsitako epeak betetzen ez badira, obrak atzeratu izanaren berri eman beharko lioke Parlamentuari?

Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea (1998-2005) plangintzarako agiri bat da, Nafarroako Parlamentuak 1997ko abenduaren 2an onetsia, eta lehendabiziko galderaren erantzunean adierazi dugun bezala, Nafarroako Parlamentuak aurrekontuan onesten dituen atxikipenen arabera gauzatzen da.

Nolanahi ere, Nafarroako Errepideen 1998-2005 urteetarako Plan Zuzentzailearen jarraipenari dagokionez, kontseilari hau 1999ko azaroaren 3an agertu zen Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordean, Planak indarra hartu zuenez geroztik, hau da, urtebete eta hamar hila-bete geroago, hura, kapituluz kapitulu, zein neurritan bete den jakinarazteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

18 eta 65 urte bitarte izaki % 65etik gorako minusbaliotasuna duten pertsonen buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak 18 eta 65 urte bitarte izaki % 65etik gorako minusbaliotasuna duten pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 13ko 23 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 18 eta 65 urte bitarte izaki % 65etik gorako minusbaliotasuna duten Nafarroako pertsona kopuruari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

18 eta 65 urte bitarte izaki % 65etik gorako minusbaliotasuna duten Nafarroako pertsona kopurua taldeka banatuta:

- 1) Minusbaliotasun fisikoa dutenak
- 2) Minusbaliotasun sentsoriala dutenak
- 3) Minusbaliotasun psikikoa edota adimen gaitasunaren bat dutenak

18 eta 65 urte bitarte izaki % 65etik gorako minusbaliotasuna duten pertsonak

Soilik minusbaliotasun fisikoa dutenak	1.298
Soilik minusbaliotasun sentsoriala dutenak	592
Soilik minusbaliotasun psikikoa dutenak	1.243
Minusbaliotasun fisikoa eta psikikoa dutenak	461
Minusbaliotasun fisikoa eta sentsoriala dutenak	125
Minusbaliotasun sentsoriala eta psikikoa dutenak	168
Sailkatu gabeko minusbaliotasuna dutenak	573
Minusbaliotasuna duten pertsonak, guztira	4.460

Hori guztia jakinarazi dizut beharrezko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko martxoaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 6ko 21 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José André

Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Unibertsitateen edo unibertsitate-ikasketako zentruen sorrera eta aitorpena urriaren 13ko 298/1998 Foru Dekretuak arautzen du. Dekretu horren bidez ezartzen da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitate zentruak sortzeko edo aitorzeko prozedura, bai eta goi-mailako ikasketak emateko baimenak ere.

Arau horri jarraikiz, unibertsitateak edo unibertsitate ikastetxeak sortuko dira Foru Dekretu bidez eta Gizarte Kontseiluak proposaturik, unibertsitate

publikoa bada, eta unibertsitate berak proposaturik, baldin eta pribatua bada.

Nafarroako Goi-mailako Irakaskuntzako Sistemaren barruan, Tuteran ezarritako unibertsitateko ikasketa bakarrak Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Tuterako Zentro Elkartuan ematen direnak dira. Zentro hori sortu zen UHUNren Gobernu Batzordearen uztailaren 2ko erabakiaren eta uztailaren 20ko 235/1998 Foru Dekretuaren bidez.

Gaurdaino UHUNren unibertsitateko ikasketen eskaintza publikoak Tuterako eta eskualde horretako eskariari erantzuten dio.

Gaur egun dagoen markotik kanpo, Nafarroako Gobernuaren aurrean aurkeztu nahi den edo-

zein ekimen -oraingoz ez da halakorik gertaturriaren 13ko 298/1998 Foru Dekretuak ezarri bezala egin beharko da. Esan bezala, dekretu horren bidez ezartzen da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitate zentruak sortzeko edo aitortzeko prozedura, bai eta goi-mailako ikasketetak emateko baimenak ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko martxoaren 23an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Krisialdian diren enpresei laguntzeko Foru Legeari jarraikiz eman diren laguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak krisialdian diren enpresei laguntzeko Foru Legeari jarraikiz eman diren laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko martxoaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna / Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Talde-

ko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du krisialdian diren enpresei laguntzeko Foru Legeari jarraikiz, Nafarroako Gobernuak gaurdaino eman dituen laguntzei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Eman diren laguntzek, guztira, bederatziehun eta berrogeita bederlatzi mila, lauhun eta hirurogeita hiru pezeta egiten dute (949.463 PTA).

Iruñean, 2000ko martxoaren 23an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko apirilaren 3an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108, 109 eta 145. artikuluek xedatutakoarekin bat, Bozera maileen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena presako prozeduraz iza-pida dadin xedatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Aipatu proposamena Osoko Bilkurari jakinaraztea, honek aintzat hartzeari buruz erabakia hartzeko.

Iruñean, 2000ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozera maile Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Erregelamendua aldatzeko proposamenak arautzen dituen Erregelamenduaren Azken Xedapenetan Lehenak xedatutakoaren babesean, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko XIII. tituluko I. kapitulua aldatzeko proposamena aurkeztu du, eta presako tramitazioa emateko erabakia har dadila eskatu.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 11. artikulua adierazten du Parlamentuaren eginkizunetako bat dela Nafarroako Gobernuaren jarduna sustatu eta kontrolatzea. Eginkizun honek jaso duen interpretazioa da legegilearen nahia, Parlamentuak erakundearen sarean toki nagusia izan dezan, adierazten duela; hori dela-eta, komenigarria dirudi Nafarroako Parlamentuaren egungo Erregelamendua "sustapen eta kontrol" eginkizunak betetzeko proposatzen dituen tresnak gehitzea.

Beste biltzar batzuetako erregelamenduetan, helburu honetarako tresna erabilienetako bat da gobernu jardunaren gaineko eztabaida orokorrak egitea, inbestidurakoaz eta aurrekontuei buruzko urterokoez gain, Gobernuak eta oposizioak beraien aukera alternatiboak azaldu ahal izan diezazkioten iritzi publikoari. Dударik gabe, bide horrek asko laguntzen dio Parlamentuaren eta gizartearen arteko komunikazioari.

Arazoi horietan oinarrituta, Nafarroako Parlamentuaren iritzi Biltzarren egungo Erregelamendua aldatu beharra dago, eta berariaz sartu behar da politika orokorrari buruko eztabaida bat nahitaez egitea, urtean behin. Horrek bi xede ditu; bata, Exekutiboaren lana kontrolatzeko bideak gehitzea, eta bestea, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitatearen bizitza politikoan duen protagonismo politikoa areagotzea.

ARTIKULUAK

Artikulu berri bat XIII. tituluaren I. kapitulua- ren amaieran.

1.-Legegintza-urtearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, Gobernuak lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean izan ezik, Osoko Bilkura berezia egiten da Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida bat egiteko.

Eztabaidarako deialdia egin aurretik, irailaren lehenbiziko hamabost egun baliiodunen barranean, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari igorri ahal izanen dio Gobernuaren politika orokorrari eta Komunitatearen egoerari buruzko komunikazio bat, Osoko Bilkura berezi horretan eztabaida dadin.

2.- Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida Nafarroako Gobernuko lehendakariaren esku-

hartzearekin hasiko da, eta 195 eta 196. artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko da, salbuespen batekin: Parlamentuko taldeen parte-hartzeak 30 minutukoak izanen dira.

Azken xedapena. Erreforma honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--